

Lortutako produktuak



- Lantegi gela altzariz hornitzea: hozkailua, lan egiteko mahaia eta tabureteak, gauzak gordetzeko armairuak eta apalategiak, erakustokiak, saltokiko terminala.
- “Lore-saltzailearen kita” prestatzea, alegia, ikasleen banakako erabilerarako kutxatila bat lore-lanetan erabiltzen diren oinarritzko tresnekin: lore-saltzailearen mantala, inausteko guraizeak, alanbreak moztekoa, lore-lanetako labana, tape zinta, alanbreak.
- Lore-lanetako lantegiko berezko materialez eta oinarritzko tresnez hornitzea: ontziak, sokak, errafiak, begiztak, bilgarriak, ehunak, belakiak, loreontzi euskarriak, etab.
- Kanpaina bidezko lan metodologia ezartzea, lore-lanekin loturiko moduluetarako: loradendak (1. ikasmaila), mintegian landareak eta zohiak ekoiztea (1. ikasmaila), konposizioak loreekin eta landareekin (2. ikasmaila), lorezaintza eta loradendako salmenta teknikak (2. ikasmaila).

Lorezaintzako eta lore-lanetako zerbitzu integralen enpresa baten simulazioa

Ikastetxea

Iruñeko Nekazaritza eta Basogintzako II

Koordinatzailea

M^a Carmen Gonzaga Vélez

Irakasleak

Marian Gorraiz Ayala
M^a Jesús Barrena Misol

Helburua

Helburu orokorra:

Iruñeko Nekazaritza eta Basogintzako II beharrezkoak diren prestakuntza gunez hornitzea, Lorezaintza eta Loradendak erdi mailako heziketa zikloko curriculumean ezarritako ikaskuntzaren emaitzak lortzera bideratutako irakaskuntza eta ikaskuntza jarduerak garatzeko.

Berriazko helburuak:

- Lanbidea eta antolaketa kudeatzeko gaitasun funtzionalak aldi berean eta modu integratuan gara daitezela sustatzea (gizarte, giza eta enpresa teknikak), simulazioko egoera metodologiko-didaktiko batetik abiatuta, simulazioak aukera ematen baitu, hezkuntza formalaren esparruan, ezagutza eskuratzeko testuinguruan kokatuta eta bizipenen bidez.
- Ikasleak arduraz eta modu autonomoan molda daitezela bultzatzea, horretarako abiapuntua izanik enpresa baten dinamikan gertatzen diren ezusteen, gorabeheren eta gatazken aurrean erabakiak hartzea eta arazoak konpontzea.
- Edukiak etengabe egunera daitezela laguntzea, irakaskuntza-ikaskuntza jarduerak sistematikoki tokiko ekoizpen sistemarekin lotuz.
- Ikasleei beren bokazioa orientatzen eta lana lortzen laguntzea, lan munduko berezko rolen eta zereginen irudikapenak eginez.

Ezaugarriak

Proiektuko helburuak lortzeko, enpresa simulatu bat sortu da, loradenda bat; loradenda hori berriazko irakaskuntza-ikaskuntza ingurune bat da, ikasgela baten itxura baino enpresa ingurune baten itxura duena, nahiz eta enpresaren gainetik xedeak hezkuntza izaten jarraitzen duen.

Irakaskuntza-ikaskuntza ingurune hori honela eraiki da:

- Gune fisiko bat: lore-lanetako lantegi gela.
- Antolaketa egitura bat: ukitutako moduluen ardura duten irakasleen arteko lantalde bat sortzea, ikasturte hasieratik planteatzen diren ekintzak planifikatzeko, koordinatzeko, antolatzeke eta ebaluatzeke.
- Prozedura batzuk: kanpainak planifikatzea, sektorean garatzen direnekin bat.
- Lehen eta bigarren ikasmaitetako ikasleen artean zereginak banatzea, zikloko ikasle guztiek parte har dezaten.

PROIEKTUAREN ERABILGARRITASUNA

Proiektua garatzeak Iruñeko Nekazaritza eta Basogintzako IIri aukera eman dio gune bat lore-lanetako lantegi gela gisa hornitzeko; hala, gune hori oinarritzko materialarekin ekipatu da, lore-lanekin lotura zuzenagoa duten moduluak hobeto garatzeko.

Kanpaina bidezko lanak ikasleei lan prozesuaren gaineko ikuspegi osoago bat ematen die, ekoizpenetik hasita (landareak eta loreak), kasu bada, diseinu eta lanketatik igaro eta lortutako produktuak merkaturatzera eta/edo erabiltzera (lorategietan, apaingarri gisa, ekitaldietan) iritsi arte. Horrek aukera ematen du jarduera bakoitzak une oro benetako egoeretan kokatzeko.

